

kirol... eta!
Kitto!
2020-1-10 1125 zkia.



**Kirol
Sariak
25 urte**

ORAIN DUZU AUKERA!

matrikula zabalik

www.aek.eus



Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379 eibar@aek.eus



Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

MARTXOKO DEIALDIA
AZTERKETAK Eibarren eta Durangon

MATRIKULAK
Urtarrilaren 7tik 24ra

AZTERKETA DATA

PET	AZTERKETA OSOA	Martxoak 14 (larunbata)
FCE FS	AZTERKETA OSOA	Martxoak 14 (larunbata)
CAE	AZTERKETA OSOA	Martxoak 14 (larunbata)

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83	DEBA:	Akabi	943 19 16 79
	Idiomaster	943 79 07 84		North Street English	652 44 86 46
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53	DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
EIBAR:	Link Idiomas	943 20 39 59	MENDARO:	Akabi	943 75 50 55
	Target Schools of English	607 83 36 13	MARKINA:	Lea Artibai Ikastetxea	94 616 90 02
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32	ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
ELGOIBAR:	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
OÑATI:	Sounds Great	943 78 20 91	ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
			MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58



Informaticando

KARTELERIA DIGITALA

ZURE NEGOZIOAREN IRAGARKIA
EIBAR, ELGOIBAR ETA DURANGON

943 15 06 22

WWW.INFORMATICANDO.EUS



EZ GALDU AUKERA
50 PANTAILA
+ ZINEMA

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOAK: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Malen Jainaga

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.200 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta inntzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA)**



Urte Berri On



Urte Berri On

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MORDO.- Asko, piloa. "Diru mordua egin eban huskerixa bategaz".

MORDO HAUNDIXA.- Asko, kopuru itzela. "Eta sariak bota zittuen Jaunak esandako lekuan, eta mordo haundixa atara eben".

astean esanak

"Ingalaterran paziente gehienek ez dute erreferentziako medikurik; osasun-zentroa besterik ez. Sendagilearengana doazen bakoitzean pertsona desberdina aurrean izanda, horrek zaildu egiten du gaixoa ezagutzea eta bere diagnostikoa eta jarraipena egitea. Han tibia apurtzen baduzu erizain batek artatuko zaitu. Horrek badu abantailarik: errespetu handiagoa digute eta zeozer errezetatzeko aukera ere badugu. Osasuna publikoa da, baina bere kudeaketa pribatua: funtzionario izan beharrean, langile libreak dira"

(SILVIA RODRIGO, ERIZAINA)

"Jendeak irakurtzen du uste dugun baino gehiago, baina ez du liburu formatuan irakurtzen, pantailan baizik, batetik bestera joanez. Interneteko irakurketak ez du liburuko irakurketarekin zerikusirik. Irakurketa helbururik gabea da, azalekoa, entretenimendutik ere badu. Irakurketa teknikoak, irakurtzeko trebezia gehiago desarrolatzen da, baina irakurketa kulturala, nire espirituari zerbait ekarriko diona, intelektua elikatuko duena eta emozioak eta mundua ikusteko modua elikatzen duena liburua da. Formatuak iraungo du, baina poesiarekin gertatzen den bezala, erreduko gero eta txikiagoan"

(ANGEL LERTXUNDI, IDAZLEA)

"Partidu osoak ikusiko dituen azken belaunaldikoak gara. Gaur ez dute 90 minutu ikusi nahi; jokaldi onenak jasotzen dituen hiru minutuko klip batekin nahikoa dute. Foballak barnean daramagun primitibismoari erantzuteko balio bazuen, gehiegi zibilizatzeak ez dio onik ekarriko. Guztiz robotizatzen dihardu eta 20 urtetan epailerik ere ez da izango. Hartzen baduzu 80. hamarkadako kamiseta bat, zelako pisua zuten... bustiz gero, ezin antxintxian egin! Gaur egun plastikozkoak dira. Konturatzen naiz teknologiari eta informazioari egokitu den belaunaldiko parte naizela, baina bihotzean kromoak biltzen zituen umea naiz oraindik"

(JORDI CRUYFF, FOBALLARI-OHIA)



Gureak-eko bihargiñendako bazkarixa antolatu dabe

Urkizuko soziedadiak osatzen daben Auzokoak alkartekuak Gureak lantegi babestuetako bihargiñendako bazkarixa antolatu dabe bixarko, Urkusu Gain eta Erdi Bana alkartietan. 1981. urtiaz geroztik urtero, Errege eguna pasau eta hurrengo zapatuan preparatzen daben jai eguna biribiltzeko, gaiñera, dantzaldixa eta oparixen zozketia be egingo dittue.

Urkizuko soziedadekuak ixa 40 urtetako tradiziñuari eusten detse.

Alfaren sorreraren mendeurrena gogoratzeko argazkixa ipiñiko dabe Legarren

1920ko urriaren 28xan sortu zan Alfa fabrika zaharra eta, aurten sorreriaren mendeurrena beteko dala-eta, urtarrillian hori gogoratzeko erretratua ipiñiko dabe Legarre kalian, 19. zenbakixa dagan horman. Izan be, Ego Ibarra batzordetik azaldu dabenez, *"Alfa eraikin horren azpiko aldian eguan eta, zihetzago esateko, trenbidaren beste aldian. Ipiñiko dan argazkixan, baiña, dagoe-*

neko desagertuta daguazen basarri asko be ikusi ahal izango dittugu, hala nola, Kaskarrengua. Baita Isasiko elizaren hondarrak edota Markeskuako eranskin desagertuak be".

Ego Ibarra batzordiarren urteko lan-plangintzaren barruan aurreikusitta eguana beteta, iaz Arratebide, San Kristobal, Txonta eta Legarre kalietan ipiñi zittuen antziñako erretratuak eta, horrez gain, Untza-



gako jubilau etxian ipiñi eta erretiratu zan argazkixa Untzagako dorrian jarri zan. Oin arte, guztira, 10 izan dira historixia

harilkaltzeko asmuarekin herriko toki diferentietan "Argazkiak Mintzo" egitasmuaren barruan ipiñitako argazkixak.

Oporrak Bakean programarako famelixak bihar dira

Urtia hastiarekin batera abiatu dabe Oporrak Bakean 2020 kanpaiña Sahararen aldeko taldiak eta, Eibar-Sahara Elkartekuak aurreratu dabenez, udan umiak etxian hartzeko prest daguaz famelixen premiña dago. Oin dala 20 urte baiño gehixago sortu zan programa horrerri esker bizitza baldintza oso gogorak dittuen millaka hurrek pare



bat hillebete basamortutik kanpora pasatzeko aukeria izaten dabela urtero eta, osasunari begira, aldaketa horrek mesede handixa egitten detsela. Hori dala eta, Eibarko jendia animau nahi dabe alkartiarekin kontaktuan ipiñi eta programarekin bat egittekoi zena emotera.



Primeran hartu dabe Polonian "Puntu Koma" euskerazko webseriea

'Puntu Koma' euskerazko webserieak bere emisiña luzatu dau Polonian, Outfilm.pl plataformaren bittartez. Izan be, Poloniako plataforma horrek LGTB kolektiboko edukixak eskintzen dittu bereziki eta urrian erosi eban internetarako sortutako telesaila, Cannesko (Okzitania) Mipcom ikus-entzunezkuen azokan. Maialen Sorzabalberek eta Amaia Rojok sortu eben 'Puntu Koma'-ren istorioa, Next Station egitasman irabazle izan eta gero eta seriea euskeraz emon dabe, polonierazko azpidatzixekin. Sortzailliak pozarren dagoz Polonian euki daben harrera onarekin: *"ETBk ekaiñian eta uztaillian emon eban saiua, eta edarra da ikustia produktuak beste toki batzuetan interesa pizten dabela ikustia".*



Hiru Erregien kabalgata ikusgarria

Ohikua dan moduan, urtarrillaren 5ian egin zan Hiru Erregien Kabalgata, Eibarko Musika Bandakua, antortxak eruaten zittuen laguntzaillak eta kale-antzerki ikuskizuna eskindu eben aktoriak lagunduta. Untzagatik hasitta ekin zetsan kabalgatiari Melxor, Gaspar eta Baltasar gaiñian eruateko karrozak, baiña aurretik, urtero bezala, pare bat orduko dantza erakustaldixa egin eben Ipurua Dantza Garaikidea, Eibarko Balleta eta Ipurua Gimnasia Erritmika taldekuak, Ipurua kiroldegixan.

autuan

TEKNIKARI LANPOSTU BI ETA ARKITEKTU PLAZA BATERAKO ESKINTZA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko azaruaren 8xan Gizarte Zerbitzuetako prestaziño-unidadeko erdi maillako bi teknikari-lanpostu lehiaketa-oposiziño libreko prozedura bidez betetzeko deialdixa eta oiñarrixak onartu zittuan, eskindutako lanpostu hutsen kopuru hori hautaketa-prozesuan zihar haunditzeko aukeriarekin. Horrekin batera, Hirigintza sailerako arkitekto plaza bat betetzeko deialdixa be egin dabe. Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaeriak urtarrillaren 22ra arte aurkeztu leikez. Informaziño gehixagorako eibar.eus web orrixan begiratu.

KULTUR-INFORMAZIÑUA JASOTZEKO WHATSAPPA

Eibarko asteroko agendia (antzerkixa, kontzertuak, haureri zuzendutako jarduerak, erakusketak...) edo Coliseo antzokixan asteburuan emoten dittuen pelikulun inguruko informaziñua zabaltzeko Whatsapp zerbitzua ipiñi dau martxan Udalak. Interesa dakanak alta emon biharko dau, horretarako 688 675 605 zenbakira mezua bialduta.



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>☎ 943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

MIREIA Ormaetxea Luis
5. Urteurrena: 15/01/14



"Bizitzak desio bat eskainiko baligu, zu berrix ezagutzea aukeratuko genuke. Faltan botatzen zaitugu!"

ZURE KUADRILLA

Desagertutako industria-eraikiñak aztertuko ditue

Eibarren desagertuta dagozen industria-eraikiñak aztertzea erabagi eban Ego Ibarra batzordiak, aho batez, azaruaren 20xan egindako billeran. Azaldutakuaren arabera, *“desagertutako industria-eraikin haundixak eta taillar inportantiak jorratuko dira, ondare industrialari buruzko biharraren azken pauso modura. Ego Ibarra batzordekidien eritziz, eraikin horrek Eibarko herrixaren baloriak islatzen ditue eta herri-ondarearen memorixa kolektibuen parte dira”*.

Hónetxek dira Mikel Aparicio ikerlarixak aztertuko dituenak: Alfa, Justo Barrenechea, Zamakola, Jata, Herederos de Pedro Muguerza, Bascaran, Mendizabal, Gabilondo, Lasa y Azcoaga, Benicoba, Cadenas Iris (almazena), Ascensio Telleria, Francisco Alberdi, Benjamin Villabella, Ocamica Hermanos, Orbea, Electrociclos, Victor Sarasqueta, Martin Errasti Cia., Jose Crucelegui, Retenaga, Hijos de Aristondo, Jose Echaniz, GAC Arragueta, Ojanguren y Vidosa, Agueda Aguirre, Almacen Unceta, Aldazabal Unceta-Barrenechea Iriondo, Hijos de Jose Joaquin Al-



dazabal, Miguel Aldazabal, Jose Urizar, Martin Iturri-Castillo, Jose Maria Cruceta, Otaola y Vildosola, Aramberri, Margola, Eloy Guisasola, Martin Unceta-Barrenechea y Cia, Abelux, M. Anitua (taillarra), M. Anitua (nabea), Genaro Crucelegui, Moises Ibañez, Odriozola, Star, Valenciana, Miguel Carrera, Ereña y Guisasola,

Martin Errasti (errota), Forjas Remigio Etxeberria, Garate y Mendibe eta Echasa. Aurreratu dabenez, aztertutako eraikin horrek guztiak Ego Ibarren webgunian jarriko ditue eskuragarri laster, *“ardatz kronologikuari jarraituta eta plano historikuen bidez, Eibarko herrixaren historixa industrialian nabigatzeko aukeria emonda”*.



579 zenbakixak eruango dau Ipuruako jubilauren oterra

Ipuruako jubilauren alkartekuak edarto ospatu eben Santo Tomas eguna, txistorra-jana eginda eta, bide batez, Gabonetako ottarraren zozketia egin eben: zenbaki saritua 579 izan da eta irabazliak urtarrillaren 21era arteko epia izango dau jasotzeko. Ordezko zenbakixak 318 (urtarrillaren 22tik 28ra) eta 857 (urtarrillaren 29tik otsaillaren 5era) dira.

Bixarko manifestaziñorako autobusa antolatu dabe

Sarek deittuta euskal presuen eskubidien alde bixar Bilbon egingo dan *“Orain Presoak. Atera Bidera”* manifestaziño nazionalera juateko autobusa antolatu dabe Eibarren. Manifestaziñua 17:00etan hasiko da, La Casillatik, eta autobusa Ego-Gaiñetik 15:30xetan urtengo da. Preziua 6-8 eurokoa izango da eta izena emoteko Beleko, Buenos Aires, Depor eta Kultu taibernetara jo leike.





GASOLEOEN BANAKETA




Otaola etorbidea, 13-Bis

GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA

Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77




ezagutzen dituzu gure sare sozialak?






gaztekitto

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Armerixako Alex Alonsok Kutzaren ikasketa amaierako sarixa jaso dau

Alex Alonso Teso, Armerixa Eskolan "Mantentze Lan Elektronikak" zikloko ikasliak sarixa jaso eban abenduaren hasieran, Kuxaren Ikasketa Amaierako Sarien XLIII.



Ediziñoko irabazlieri sarixak eta diplomak emoteko ekitaldixan. Kutxa Fundazioaren sarixak 2018-2019 ikasturtian Gipuzkoako Unibersidade edota Lanbide Heziketako zentruetan baktoxari dagokixon arluan espediente akademikorik onena lortu dabon ikaslieri emoten detsez eta azken edizio honetan 102 ikaslek jaso eben sarixa. Argazkixan, saritutako ikasliarekin batera, Joseba Etxaniz bere irakaslia dago (ezkerretan).



Olentzero Aspaceko umiekin egon zan

Ikasliak Gabonetako oporrak hartu baiño lehen, herriko eskoletara bisitak egitten ibilli zan Olentzero eta, beste urte batzuetan bezala, oinguan be Aspacera juan zan. Normala dan moduan, atetik sartu bezin pronto ume guztiak pozarren ipiñi ziran eta primerako harrerria egin zetsen.

Centro de fisioterapia



Manu Sánchez



KIROL
FISIOTERAPIAN
ADITUAK

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Kirol-masajea eta terapeutikoa
- Errehabilitazioa
- Kirol lesioen tratamendua
- Elektroterapia

Txaltxa Zelaiko parkingetik 50 metrora, herriaren erdi-erdian

Juan Gisasola, 14 • Tel.: 943 127 078 • EIBAR (Gipuzkoa)



pedro alberdi

Laster asko ikasiko nuen lan batzuk eskolara joatea baino garrantzitsuagoak zirela. Hori ederki baliatuko nuen noizbehinka eskolatik piper egiteko.

Kobratzeko eguna

Gure aita zenak tailer txiki bat zeukan **-taller mecánico jartzen zuen enpresa-zigiluan-**, Errekatxuko aldaparen hasieran. Batez ere, *chispak* eta *extractorrek* egiten zituen eskopetarako, eta herriko armagin asko zituen bezero. Gero, hilaren azken egunean, faktura kobratzera joan behar, noski, haietako bakoitzaren egoitzara. Fakturak kobratzea hiru bat orduko ibilbidea zen, bisitatu beharreko tailerrak herri osoan sakabanatuak zeuden eta. Ni hamabihamahiru bat urterekin hasiko nintzen amari laguntzen langintza hartan. Ama baitzen fakturak kobratzera joaten zena. Gurasoek agiri bat sinatzen zidaten eta hilero arratsalde bat libre izaten nuen ikastetxean.

Eguna eta ordua heltzen zirenean, aurreneko lana zen fakturak ordenean jarri eta ibilbidea zehaztea. Gurea, gutxi gorabehera, honakoa izango zen: Errekatxu (*Pedro Arrizabalaga*) – Txantxazelai (*Hijos de Aramberri eta Txopitea*) – Urki (*Martin Amuategi*) – Ubi-

txako errebuelta (*JA Belategi*) – Elgeta kaminoa (*Gorosabel*) – Isasi (*Arana*) – Ardantza (*Paulino Larrañaga*) – Musategi (*Laurona*) – Jardineta (*Martin Ugarteburu eta Union Armera*) – Ibagain (*Crucelegui Hermanos*) – Pagei (*Luis Arrizabalaga*) – Coliseo atzea (*Antonio Madariaga eta Pedro Irusta*) – Ibarburutze (*Vda. e Hijos de JJ Sarasketa*) – Estazio kalea (*Zubillaga*) – Estazio gaineko zubiondo (*Armas Ego*) – Matsaria (*Agote*) – Grabadoreak (*Victor Sarasketa, eta 10 zenbakian, Andres Alberdi gure osaba*) – Urkusualde (*Trust eibarrés*) – Txontako sarrera (*Larrañaga*) – Bidebarrieta behe (*Uriguén, eta 33 zenbakian, Unamunzaga*) – Fundidoreak (*Armas Garbi*) – Arane bidea (*Jose Arostegi*) – San Agustín zeharkalea (*Francisco Anitua*).

Laster asko ikasiko nuen lan batzuk eskolara joatea baino garrantzitsuagoak zirela. Eta eskarmentu hori ederki baliatuko nuen ondoko urteetan, noizbehinka eskolatik piper egiteko.



asier azkue

Kapitalismoaren baitan gertatzen diren klaseen arteko kontraesanetan etorkinak dira merkatuak eskaintzen dituen onuretatik kanpo gelditzen lehenengoak.

Bigarren mailako biztanleak

Espainiar guztiak etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea dutela dio Konstituzioaren 47. artikulua. Gainera, herriagintek era guztietako erraztasunak jarriko dituzte alokairuen prezioa espekulatzaileen atzaparretatik at lagatzeko. Teoriak behintzat hori dio. Errealitatea, aldiz, guztiz desberdina dela ikusteko ez daukagu oso urrun joan beharrik. Hortxe ditugu hutsik aurkitu ditzakegun ehunka pisu eta pisurik aurkitzen ez dituzten beste ehunka lagun.

Gauza guztiekin gertatzen den bezalaxe, "etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea"-k ez du egungo logika merkantilistetatik ihes egiten. Honek jada diskriminazio egoera bat sortzen du, besteak beste, pertsona askok ez dutelako merkatuak ezartzen dituen prezioei aurre egiteko inolako ahalmenik. Bi faktorek baldintzatzen dute diskriminazio hori: soldatan agertzen diren zenbaki kopuruak eta azalaren koloreak.

Eta higiezin merkatua ez da salbuespen bakarra, baina etxebizitza bat izateko eskubidea ezinbestekoa izanda -persona baten bizi-iraupena egoten da jokoan-, gero eta larriagoa izaten da kanpotarrek pairatzen duten pribazioa. Agentzia askok ez dute ezer jakin nahi izaten interesatuak atzeritarrak direnean, negozioaren errentagarritasuna zalantzan ikusten dutelako. Ondorioz era guztietako aitzakiak jartzen dituzte eta traba burokratikoek zailtasunez betetzen dituzte tramitazio prozesuak.

Kapitalismoaren baitan gertatzen diren klaseen arteko kontraesanetan, etorkinak dira merkatuak eskaintzen dituen onuretatik kanpo gelditzen diren lehenengoak; batzuetan lan-esku merke gisa, besteetan kale gorrian. Higiezin agentziak eskaintzen dizkiguten kasu lotsagarriak icebergaren tontorra baino ez dira. Konstituzioak espainiarrak izendatzen ditu lehenik eta behin, pista bat izango ote?



ENRIQUE ZUAZUA (matematikaria):

“Borondatez eta amorruz egingo dut lan Eibarren alde”

Enrique Zuazua matematikari eibartarrak Eibarko Udalak eman ahal duen aitortza handiena eta garrantzitsuena jaso zuen hilaren 3an, ‘Txopitea eta Pakea’ saria. Umil eta ohore handiz, Zuazuak esker onez jaso zuen saria eta “sortzaile eibartarrei” eskaini zien. Iraganeko Eibar gogoratu zuen, txikitan ezagutu zuen herria, gaur egun duen arrakastaren hazia, baina etorkizunean jarri zuen begia. “Eibarrek erreferente izaten jarraitu behar du ekintzailertzan eta berrikuntzan. Eibar marka sustatzen jarraitu behar dugu, gure arteko diferentziak albo batera lagata”. Saria jaso baino lehen, adeitasunez erantzun zituen gure galderak.

- Nola jasotzen duzu ‘Txopitea eta Pakea’ saria?

Eibar hiri garrantzitsu eta eredugarria da, norberaren jaioterria izateaz gain, eta ohore handia da horrelako hiri baten enbaxadore izatea. Saria baino, ardura hartzen dut. Orain dela 40 urte Eibar ezagutu genuenok Eibarren arima hori ikusten dugu kalean oraindik, gordetzen da, baina beste alor batzuetan indarra eta ekimena galdu dugu, industriari adibidez. Niri zientziaren arloan lan egitea tokatzen zait eta borondatez eta amorruz egingo dut Eibarren alde. Lehen egiten nuen eta orain, ‘Txopitea eta Pakea’ saria-

ren ondoren, are gehiago. Niretzat enkargu bat da. Era berean, ez da nirekiko sari bat, baizik eta belaunaldi oso bati, zientziaren eta akademiaren munduan dabilzan eibartarrei egiten zaien aitortza.

- Iraganeko Eibarren arima aipatu duzu, alor batzuetan indarra eta ekimena galdu dugula. Eibar etorkizunera begira jarri ahal izateko pausoak emateko ardura hartzen duzu?

Gogoeta horretan laguntzeko gogoia eta asmoa gutxienez bai. Gaur egun zaila da herri batentzat eredu berri bat sortzea. Euskal Herria txikia da, hiriburuek indar asko hartu

dute eta Eibar erdian dago. Batzuetan ondo dago erdian egotea eta beste batzuetan horrek zailtasunak sortzen ditu, hiriburuek erakarri egiten dutelako. Gure indarrak areagotu eta sendotu behar ditugu, eta hortik zabaldu. Unibertsitate munduan UNIA dugu, Euskal Herriko Unibertsitatearen eskolarekin, eta aukera ederra dugu hor. Hala ere, erabaki guztiak ezin dira Eibarren hartu eta gehienak gure eskuetatik kanpo daude. Eibar unibertsitate-esparru bezala finkatzea izan beharko litzateke gure lehentasun bat. Irakasle bikainak daude, gehienak euskaldunak gainera, eta lan ederra egiten dihardute energia berriztagarrien inguruan, baina eskola sendotu beharko litzateke karrera edo gradu gehiagorekin. Bestetik, ekonomiaren mundua konplexua da eta ez naiz horretan aditua, baina zaila egiten zait asmatzea nola bete ditzakegun herrian hutsik ditugun eraikin guztiak ekimen berrieekin. Horren aldeko apostua egin beharko genuke, saiatu gutxienez. Adibidez, gazte asko euren enpresa sortzen hasten direnean, ez

daitezela jarri hiriburuetara begira, Eibarren geratzeko baldintzak eskaintzea.

- Maiatzean jaso zenuen Humboldt Kate-drak Eibarren hasitako ibilbide baten aitortza egiten duela aipatu izan duzu. Nola hasi zen bide hori?

Ni Ikastolan hasi nintzen, Zezenbiden, zezen-plaza inguruan zegoen etxabe batean. Ez zegoen ikasle guztientzako gela eta irakasle nahikorik, eta gela bitan adin ezberdinetako umeak nahastuta egon ginen. Sasoi hartan Zezenbiden zelaia zeuden eta asko jolastu genuen han. Urte bi haietan asko ikasi nuen, baina Ikastola Elgoibarrera joan zen eta Sagrado Corazonera pasatu nintzen, Isasin (gaur egungo La Salle). Sasoi hartan belaunaldiak oso ugariak ziren eta nire gelan 63 lagun geunden. Ikastolatik nentorrenez, ariketa bat egin behar izan nuen sartzeko eta zailtasunez egin nuen, galdera guztiak gazteleraz zeudelako eta ni euskeraz egitera ohituta nengoelako. Matematikak indar asko zuen irakaskuntzan eta batuketara handiak jartzen zizkiguten arbelean, umeak isilean eta lanean egon gintezen. Nik erraz eta gustora egiten nituen, eta erraztasunez egiten duzuna gustatu egiten zaizu, eta gero eta gehiago egitean erraztasun gehiago irabazten duzu. Gero, Unibertsitate Laboralean egin nuen Batxilergoa eta matematikekin ondo moldatzen jarraitu nuen. Unibertsitatean sartzeko orduan, nahiz eta matematikarekiko zaletasuna izan, zalantza askorekin egin nuen aukera. 1979. urtea zen, trantsizio sasoa, eta giro politikoa oso bero zegoen. Matematikak irtenbiderik ez zuela esaten zidaten, irakaslea izateko besterik ez zuela balio, abstraktuegia zela, hobe zela ingeniarietza edo ekonomia ikastea, eta abar. Baina nire anai nagusiak



“Eibar unibertsitate-esparru bezala finkatzea izan beharko litzateke gure lehentasuna”

gustokoen onena egiteko esan zidan eta hori egin nuen. Leioan hasi nintzen, Zientzia fakultatean euskeraz egiten zen lehen urtean. Ikasgai bakarra genuen euskeraz, fisika, Joserra Etxeberria eibartarrak ematen zuena. Gero, karrera amaieran, euskera zientifikoko ikasgai bi izan genituen. Azkenean ni euskeraz erdi-alfabetatu egin nintzen, izan nuen aukeren arabera, baina tesina euskeraz eta gazteleraz idatzi nuen. Ondoren, karrera amaitzean, Parisera joateko aukera izan nuen beka bati esker tesia egiteko.

- Eta ikasketak amaitu ondoren, zer?

Sasoi hartan EHUn ez zegoen plangintza argirik itzulitakoek jarraitu behar genuen ibilbidearen inguruan, baina Madrilgo Unibertsitate Autonomoak funtzionario plaza batzuk atera zituen nazioarte mailako matematika departamendu bat sortzeko asmoz eta hara joan nintzen.

- Zure ibilbidea ikusita, gune berrietan bidea zabaltzen joan behar izan zarela dirudi.

Gurea izan zen ia edonor unibertsitatean sartzeko moduan egon zen lehen belaunaldia. Unibertsitate berriak sortzen hasi ziren eta, lehen belaunaldiak harrapatu nituenez, unibertsitatean hainbat lan eta aukera izateko parada izan dut. Guk oso urte onak hartu genituen. Orain gazteentzat gauzak askoz ere zailago daude.

- Gazte asko atzerrira joan behar izan dira etorkizun oparago baten bila. Nola erakarri ditzakegu?

Euskal Herriak arazo soziologiko bat du: biztanleak galtzen ari gara. Batzuetan ulergaitza da. Hemen bizi direnak pentsatu dezakete hemen bizitzeko baldintzak primera-

koak direla, baina jaiotza-tasa oso baxua da. Hain pozik bizi bagara, zergatik ez ditugu ume gehiago? Zergatik ez ditugu sortzen aukera berriak hurrengo belaunaldientzat? Izen euskaldunak toki askotan ikusten ditut irakasle moduan ekonomia arloan, zientzia arloan, Ingalaterran, Amerikako Estatu Batuetan... Eta ez dakit ahalegin nahikorik egiten den eurak hona ekartzeko orduan. Baina kontua ez da jendea ekartzea bakarrik. Askotan planteamendu berrieekin etortzen dira eta hemen daudenen aldetik egokitze esfortzu bat eskatzen da. Jende horrek dinamika berritzen ditu. Beraz, aukera batzuk sortzeaz gain, soziologikoki eraldatzeko joera egotea beharrezkoa da. Alemanian eza gutzen dudan eredu, Humboldt Fundazioaren ikuspuntutik, lidergo bat dago argi eta garbi. Lidergo argiak behar dira eraldaketa soziologikoen alde egiteko. Bestela, gizakiok erresistenteak gara aldaketekiko. Gertatu zaigun arazoetako bat hori izan da. Alde batetik, Gobernutik hainbat programa sortu dira jendea erakartzeko, baina ez dakit presio nahikoa egin den etorri direnak onartuak izan daitezela, eta askotan gertatzen dena da etorri direnak alde egiten dutela berri. Unibertsitateko irakaslea izatea ez da klarionarekin arbelean idaztea, baizik eta giro akademiko, berritzaile, ireki eta aske batean murgilduta sentitzea. Hori soziologiarekin batera dator eta tradizioa behar du. Beraz, ez da horren erraza. Eraikinak egin ahal dira, baina instituzio akademikoak sortzea askoz ere zailagoa da. Foballean bezala gertatzen da. Foball zelai bat eraikitzea milioi kopuru batzuren kontua da, baina Eibar bezalako goi-mailako talde bat egiteko tradizioa, planifikazioa, zorte pixka bat, urteetako lana, eta eredu argi eta garbi bat behar da.

- Matematika aplikatueta munduko onena zarela esaten dute. Nola hartzen dituzu horrelako berbak?




Zuazuk De los Toyos alkatearen eskutik jaso zuen saria. Ekhi Belar



Nire pegorako onena agian bai, eta bakarra, ez dagoelako beste matematikaririk (barrak). Ez, tira, munduko onenak ez daude hemen, beste toki batzuetan daude, eta ez da hain erraza sailkatzea. Matematikan dihardugunok argi dugu non kokatzen garen eskala batean. Gainera, mundu akademikoan nahastu egiten dira merituek eta aukerak, eta nik oso aukera onak izan ditut beti. Beti saiatu izan naiz gauzak egiteko beste modu ezberdin bat edukitzen, eta hau bai da Eibarren ikasi dudana zerbait (ez dakit giroan dagoen, etxekoa den, kalean arnasten den edo zer). Sortzea eta ekoiztea gustatzen zait, baina besteekin partekatzeak, hori da Eibarko eredia. Eibarren enpresagintza beti izan da ezberdina. Alfaren kooperatibismoa beti izan da eredu garria, baina kooperatibak ez ziren enpresek ere kooperatibismo kutsu hori zuten: elkarlana, konfiantza-giroa... Zerbaitetan arrakasta izan badut, horretan izan da. Lan gogorra egitea bai, baina partekatzeak eta hedatzeko. Horrek eman dio arrakasta edo oihartzuna nire lanari.

- Zein mezu emango zenieke euren bidea hasten diharduten gazte eibartarrei?

Niri esan zidatena: "gustatzen zaizuna jarraitu". Zaletasunak jarraitzea eta ez gertzea baldintzatuta gero nolako irteerak izango dituzten pentsatu dutelako. Etorbizuna ezin da aurreikusi, baina seguru nago bakoitzak dituen zaletasunei ekinez gero aukerak izango direla, hemen edo beste non-



baiten. Mundua geroz eta globalizatuagoa dago eta distantziak geroz eta hurbilagoak dira. Ikastea oso inportantea da (ez beharrezkoa, jende askok asko ikasi barik euren bizimodua oso ondo ateratzen dutelako arrerera), ikasi dezatela ahal bezain beste, eta bakoitzak bere zaletasuna jarrai dezala, zaletasuna profesio bihurtzen saiaturaz. Hori izango litzateke arrakastarik handiena.

- Hain zuzen ere gazteei zuzentzen zaizkizue laguntzarekin egin den 'Jakin eta Erein' egitasmoa. Nolako erantzuna izan du?

Alberto Albistegi zinegotziaren ideia izan zen unibertsitatearen, zientziaren eta eza-gutzaren kulturaren inguruan zerbait egitea, eta eredu ezberdinak landu ditugu. Lehenengo edizioan hitzaldi ziklo bat eskaini genuen eta hizlari eibartar bikainak izan genituen, baina konturatu ginen eredu hori ez zela gehiegi hurbiltzen jendearen beharretara. Aurten, bigarren edizioan, eredia aldatu dugu eta saio bat antolatu genuen Oihana Aristondo EHUko Eibarko Ingeniari-tza Eskolako koordinatzailearekin elkarlanean. Graduak azken bi urteetako ikasleak bildu genituen eta lau-bost hizlari etorri ziren, think tank (ideia laborategia) antzeko ekitaldi bat egiteko. Hau da, lehenik 10-15 minutuko lau edo bost hitzaldi labur eskaini zituzten energia berriztagarrien, gizartearen erronken eta klima aldaketaren inguruan, eta erronka horiei aurre egiteko enpresa munduan nolako ekimenak sortzen ari diren

aztertu genituen. Gero, mahainguruak egin ziren ikasleek hizlariekin zuzenean gai horiek jorratzeko eta eztabaidatzeko, eta mahai bakoitzean landutako ondorioak bertan aurkeztu ziren. Pozik geratu ginen, edizio honetako ereduarekin beste proaktibotasun bat ikusi genuelako. Ikusiko dugu hiru gure eredu edizioan zein eredu jarraitzen dugun, baina uste dut ideia aproposa izango litzatekeela gazteekin eskoletan gauzak egitea.

- Beti erakutsi izan duzu euskeraren aldeko jarrera. Euskerak bere tokia aldarrikatu behar du zientziaren munduan edo zaila da?

Euskerarentzat zaila da, baina zaila da oro har, ez zientzian bakarrik. Euskal zientzian gehienontzat ardura handia da. Ikusten dugu egin diren ahaleginen ondorioak ez direla guk uste genituenak. Gaur egun ia jende guztiak ikasten du euskeraz eskolan, baina erabilera ez da horren altua. Euskal Soziolinguistika Klusterraren azken inkesten arabera euskeraren erabilera kalean ez doa gora, nahiz eta ofizialki gero eta jende gehiago euskaldunduta egon. Modu paraleloan, unibertsitatean gauza bera gertatzen ari da. Gaur egun karrerak euskeraz ikasi ahal dira neurri handi batean, baina mundu akademiko geroz eta ekimen globalizatuago bat bihurtzen ari da. Orduan, jendea ingelesez egitera behartuta dago. Euskerak, beste hizkuntza batzuk bezala, badu aukera testuak sortzeko, eta irakaskuntzan eta ikerketamailan erabiltzeko, baina kontuan izan behar da profesionalak behartuta gaudela nahitaez ingelesez idaztera. Ez dakit zeintzuk diren etorkizunera begira euskerak dituen benetako aukerak, baina euskeraz dakigun konpromiso handiago baten beharra dagoela uste dut.

"Sortzea eta ekoiztea gustatzen zait, baina besteekin partekatzeak, hori da Eibarko eredia"

Maddi Escudero (hockey jokalaria):

“Realarekin entrenatzera astean bitan joaten naiz Donostiara”

Maddi Escudero eibartarra Real Sociadadeko belar hockeyko emakumeen taldeko jokalaria da. 15 urte ditu eta Eibarko institutuan ikasten dihardu DBHko 4. mailan. Astean bi aldiz joaten da Donostiara bere taldearekin entrenatzera. Hockeya nahiko kirol ezezaguna da Eibarren, baina gertutik ezagutzea merezi duela dio Maddik.

- Nola hasi zen zure harremana hockeyarekin?

Ikastolan ezagutu nuen hockeya, eta pila bat gustatu zitzaidan. Olinpiadak egiten genituenean beti apuntatzen nintzen. Etxean komentatu nuen eta nire ama harremanetan jarri zen txuri-urdinekin. Berehala deitu zidan Nerea Unzeta-barrenetxeak. Nerea Realeko jokalaria ohia da, eta gaur egun nesken taldeko arduraduna. Bere gurasoak eibartarrak dira eta oso ondo portatu da nirekin. Sticka edo makila oparitu zidan eta beti izan ditu oso detaile politak. Urtebete daramat kadeteen taldean, aurrelari moduan jokatzeko dut eta hurrengo denboraldian jubenilen taldera pasatuko naiz. Instalazioak Bera Beran daude eta oso gustora nago taldekideekin. Denak dira Donostialdekoak.

- Gogorra egiten da astean bi aldiz Donostira joatea entrenatzera?

Gustora joaten naizenez, ez zait gogorra egiten. Astero bi aldiz entrenatzen dugu, eta noizbehinka partiduak izaten ditugu. Euskal Herriko Ligan 4 taldek jokatzen dugu, hiru Donostiakoak (Lizeo, Ekintza eta Reala) eta Getxoko Jolaseta. Txapelketan bigarrenak gara. Aurreko denboraldian Gijonen jokatu zen Espainiako Txapelketan egon ginen, eta aurtur Santanderren egon gara. Espainia mailan talde onenak Kalatunia inguruak dira,



eta mundu mailan Holanda eta Argentina dira erreferenteak.

- Emakumezkoen hockeyak momentu onak bizi dituela esan daiteke?

Iaz, ni sartu nintzenean, urrezko denborra eman zieten Realeko foballeko eta hockeyko nesken lehen taldeei. Hockeyko taldea Europako txapeldunordea izan zen.

Garai onak dira, beraz, Donostiako emakumezkoen kirolentzako. Hockeyak tradizio handia du Donostian, baina Eibarren eta inguru honetan kirol ezezaguna da. Dena dela, gogoratu behar dugu Almudena Urizar eibartarra Atletico de Madrid eta Realeko atezaina izan zela eta 1981ko Argentinako mundialean egon zela.

- Zaila da hockeya?

Hasieran pixka bat kostatzen da, stickerrarekin ohitu arte. Ikastolan izotz gainean erabiltzen den stickerra erabiltzen genuen. Guk belar gainean jolasten dugu eta erabiltzen dugun makila izotzetakoa baino motzagoa da. Punta txikiagoa dauka eta alde batetik bakarrik jo daiteke. Zailagoa da, baina ohitu egiten zara. Eguraldi txarra egiten duenean aretoan jokatzen dugu.

- Zer ezaugarri behar dira praktikatzeko?

Teknikaz gain, prestakuntza fisikoa oso garrantzitsua da. Azkarra izan behar duzu. Paseak oso azkarrak izaten dira. Abiadura da belar hockeyko jokalariek lurra irabazteko eta gol aukera erasokorrak errazten laguntzeko erabiltzen duten armetako bat. Oso kirol polita da eta haurrak eta gazteak ezagutzera animatu nahiko nituzke.

- Beste kirolak gustatzen zaizkizu?

Beti izan naiz oso futbozalea, baina jokatzea baino gehiago ikustea gustatzen zait. Eibarko partiduetara ahal dudan guztietan joatean naiz eta pila bat gozatzen dut zaletu moduan.



olabarría AUTOBUSAK

BERTOKO ETA NAZIOARTEKO TXANGOAK

Besaide, 11. ELORRIO

Tel. 607 - 41 06 21 (Eibar) / 94 - 623 16 47 (bulegokoa) / joxean@jolarbarria.com

"Go!azen 6.0"

ikuskizunaren emanaldi bikoitza etzi Coliseoan

Domekan ailegatuko da Coliseo antzokira "Go!azen 6.0" ikuskizuna, Pausokaren eskutik. Aurreko urteetan bezala, umorea, musika eta dantza izango dira antzerki funtzioko ardatzak aurten ere: uda iritsi da eta berri ere Basakabik bere atea zabalduko ditu. Baina aurten, aldaketa handiekin: Zuzenek bere kargua utzi du, Telmo kontratatu dute gerente lanak egitera eta ikasle berriak iritsiko dira. Aldaketa guzti horien aurrean, Zurik ez du ondo pasako udalekuan. Enekoentzat ere, gauzak ez dira errazak izango. Futbolari profesionala izatekotan dago, baina udara honetan dena albo batera utzi, eta Maddi



bere neskalagunarekin eta Igor lagunarekin ondo pasa besterik ez dauka buruan. Aitaren ideia bestelakoa da, ordea, Enekok entrenatzen burubelarri jarrai dezan smartwatch bat ekarriko baitio Basakabira. Bitartean, Junek eta Maddik, sekretuz eta gezurrez beteriko euren adiskidetasun harremana mantentzeko borrokatuko dute. Sakonean, haiek uste

duten baina antzekoagoak direla konturatu diren arte.

6-14 urte bitartekoentzat pentsatutako ikuskizunak beti izaten duen arrakasta kontuan hartuta, bi saio egingo dituzte: 15:00etan hasiko da lehena eta 17:00etan, berri, bigarrena. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Primeran hasi dute urtea **Indianokua** gaztelekuan



Gabonetako oporrak atzean laga dituzte Indianokua gaztelekuan eta honezgero urteko lehen hilabeterako egitaraua prestatu dute denen artean. Begiraleen berbetan, "zapatuan, gazteen proposamenek jarraituta, 'Slime-a' egiten ahalegindu ginen, horretarako osagai eta formula ezberdinak erabili. Horrez gain, gazte mordoa ibili dira egunotan eta denetarik egiteko denbora izan dute. Gustora ibili dira Indianokuko berotasunean, beraien artean solasean, mahai jolasetan edota dibertimenduzko jokoetan". Bestalde, urtarrilaren 17tik 19ra bitartean egingo den EibarRECORD Gazte Zinema Express Lehiaketarako izen ematea zabaldu dute. Animatuz gero, hilaren 16ra arte dago izena emateko aukera, Indianokua gaztelekuan bertan.



ZURICH

90 urte
zuekin!

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

Eibarko XXV. KIROL SARIAK

Eibarko KIROL SARIEN

XXV. edizioa



2019 — abenduak — 31

argazkiak:
Malen Jainaga



Sari Berezia
MARKEL SUSAETA



Waterpolo
URBAT SENIOR TALDEA eta MIREN URIZAR



Automobilismoa
IÑAKI NARBAIZA eta UNAI ETXEBERRIA



Gimnasia Erritmikoa
A. ARANBARRI, N. ARGUIZ, A. BAROJA, J. HERNANDEZ eta M. TERAN



Eskubaloia
AXIER GISASOLA



Sustapen Saria
HIERROS SERVANDO



Igeriketa
J. OSA, R. ETXEBERRIA, E. ZUBIAURRE eta M. BARRUETABEÑA



Golfa
ALBERTO EGIALDE

Urtero lez, Gabon Zahar egunean Eibarko Kirol Sarien banaketa egin zen Coliseoan. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako aukera hori aprobetxatu zen urte guztian zehar gure herriko kirol taldeek egiten duten lan nekaezina saritzeko. Guztira 32 sari banatu ziren: 29 kirol modalitate, sari berezia, euskerakoa eta sustapena.



Euskera Saria
CARMEN BAROJA



Arku tiraketa
MERTXE GIL



Arrauna
ANE eta NEREA ZIARAN



Atletismoa
GAROA MAGUNAZELAIA



Errugbia
GAIZKA ARRIZABALAGA



Eskia
XABIER URIGUEN



Foballa
MARTA LOPEZ DE GEREÑU



Herri Kirolak
ALEJANDRO ARRUTI "LANDARBIDE"



Hiru Txirilo
OSKAR URKIA



Judoa
EIDER ALBERDI



Jugger
ROUSSE GARCIA



Karatea
RODRIGO IBAÑEZ



Mendia
KALAMUA KORRIKALARI TALDEA



Pilota
LUIS ALBERTO NARBAIZA



Saskibaloia
FERNANDO VALENCIANO



Silbestrimoa
PEDRO CARBALLO



Squash
IRATXE GIMENEZ



Tenisa
MANU SANCHEZ



Tiro Olinpikoa
ANDER SUKIA



Triatloia
ADUR JUARISTI



Txakur Krosa
SONIA DOMINGUEZ



Txirindularitza
MIKEL PEREZ DE OBANOS



Wu Shu
GEAXI MOREDA



Xakea
OIER GARCIA



MARKEL SUSAETA (foballaria):

“Athletic agurtzeko momentua betirako gordeko dut bihotzean”

Markel Susaetak irabazi zuen ‘...eta kitto!’ Euskara Elkarteak banatzen duen Kirol Sari Nagusia. 22 urte eta 506 partiduren ondoren (partidu gehien jokatu dituen 5. jokalaririk zuzenak), foballari eibartarrak agur esan zion Athletic Clubi, bere bihotzeko taldeari. Banaketa mingarriaren ondoren Japoniara joan zen, Gamba Osaka taldera, eta abenduan amaitu zuen Asiako abentura. Orain abentura berri bat hasteko gogoz dago, baina eibartarron esker ona jaso zuen lehenik Coliseoan.

- Kirol Sari Nagusia jasotzen esan zenion agur 2019ari. Zure bizitzako urterik arraroena izan da?

Argi eta garbi. Ia bizitza guztia Athletic Cluben jokatzeko egon naiz, lasai eta inongo ardurarik gabe, eta bertan jarraituko ez nuela erabaki nuenean urduritasuna eta ezinegona hasi zen, normala den moduan. 2019an zehar izan ditudan gorabeherak ikusita, bai, urterik arraroena izan da niretzat.

- Arraroa izango zen zuretzat, baita ere, Athletic Cluben kamiseta ez den beste elastiko batekin foballean jokatzea, ezta?

Bai, noski. 22 urtetan kamiseta berdinarekin jokatu dut eta beste aldagela batean sartu nintzen lehen egunean arraro sentitu nintzen. Gainera, ez nintzen beste taldekin elkar ulertzen, birekin kenduta. Nahiko aldaketa handia izan zen, oso ezberdina. Gero, nire taldearen etxean jokatzea eta hura San Mames ez izatea, oso arraroa egin zitzaidan. Azken finean foballa horrelakoa da eta batzuetan kanpora joan behar zara, gauza batengatik edo beste batengatik etxean ezin zarelako geratu. Gamba Osakan ez dut gehiegi jokatu, baina oso esperientzia ona izan da.



"Athletici jarraitu nahi ez duzula esaten diozun une hori da zailena"

- San Mames bezalako zelai handi bat izan da zure etxea Ligan, Athletic asko maite duten eta etengabe animatzen duten zaleekin. Japonian, ordea, beisbola da kirol nagusia, foballaren aurretik. Zentzu horretan aldea igarri duzu?

Japonian beisbola da nagusi, baina foball partiduetan demaseko giroa sortzen da. Partidua hasi baino dexente lehenago sartzen dira zaletuak zelaira eta partiduan zehar isildu barik egoten dira. Askok animatzen dute. Alde horretatik nahiko antzeko giroa bizi izan dut Osakan, eta esan daiteke Ligan zelai batzuetan baino giro hobea dagoela orokorrean Japonian.

- Hilabete gutxi egin dituzu Gamba Osakan, baina zer ekarri duzu han bizitako esperientziatik?

Familiarekin gustora bizi ahal izateko toki batera joateko asmoa genuen eta Japonian kultura guztiz ezberdina bada ere, nahiko gustora egon gara. Hilabete gutxi egon gara han, baina asko gozatu dugu eta beste abentura baten bila goaz orain.

- Espero zenuena baino lehenago amaitu da Japoniako abentura?

Hasieran urte eta erdiko kontratua sinatzeko eskaintza egin zidaten, baina nik nahia go nuen pixkanaka joan. Azken finean Japonia oso urruti dago, bertako kultura oso ezberdina da eta familiarekin joateko asmoa nuenez ezin nintzen denbora gehiegirako konprometitu. Hilabete batzuetarako kontratua sinatu nuen, pentsatuz gustora egongo nintzela eta kontratua berrituko nuela, baina gauzak nola joan diren ikusita abentura amaitutzat ematea erabaki dugu alde biek.

- Hain urrun joanda eramangarriagoa egin zaizu Athleticetik banatzea?



"Urteak pasatzen direnean balio handiagoa emango diot lortutakoari"

Agian bai. Athletic jarraitu nahi ez duzula esaten diozun momentu hori da zailena. Gero, argi nuen ez nuela Ligan jokatu nahi eta abentura berri baten bila irten nintzen, eta nahiz eta eskaintza ugari izan, Japoniar joatea erabaki nuen.

- Athleticen jarraituko ez zenuela adierazi zenuen momentua eta San Mamesen jokatu zenuen azken partidua oso hunkigarriak izan ziren. Nola bizi izan zenituen?

Pasada bat izan zen. Horrelako agurra edukitzeak zerbait ondo egin nuela esan nahi du. Bizitza guztia talde berean pasa nuen eta argi nuen ez nuela handik irten nahi, nahiz eta azkenean irten egin nintzen. Beraz, Athleticetik agurtzeko momentua betirako gordeko dut bihotzean.

- Athleticetik joango zinela adierazi zenuen prentsurrekoan minduta agertu zinen. Mina pasatu da?

Oraindik denbora gutxi pasatu da eta gauza asko izan dira. Hala ere, nahiz eta ika-mikak izan, Athletic beti maiteko dut.

- Gertutik jarraitzen duzu taldearen martxa?

Bai! Partidu guztiak ikusi ditut, jokalariekin ia egunero egiten dut berba, eta Bilbon nagoenean eurekin geratzen naiz eta taldeari buruz egiten dugu berba.

- 9 urterekin sartu zinen Athleticen harrobian eta historian partidu gehien jokatu dituen bosgarren jokalaria zurigorria zara. Lortutakoa baloratzen duzu?

Athleticetik irteten zarenean horrelako gauzetan pentsatzeko denbora gehiago duzu, eta handik irten eta hilabete batzuetara lortu dudana jabetzen naiz. Lortutakoak balio handia duela konturatu naiz, baina urteak pasatzen direnean balio handiagoa emango diodala uste dut.

- 506 partidu jokatu zenuen Athleticekin. Zein aukeratu zenuke?

Gaur egun txapelketa bat irabaztea zein zaila den ikusita, 2015ean Bartzelonari irabazi genion Superkopako finala aukeratu nuke.

- Lezamara joan aurretik baloiari hainbat ostiko eman zenizkion Ipuruan, zure auzoan. Nola gogoratzen dituzu sasoi horiek?



Ume joan eta 22 urte eman ditu Markelek Athletic-en.

Txikitan lagun guztiek foballean egiten zuten eta horrela pasatzen genituen orduak. Ipuruako anexoan jokatzen genituen partidua, eta baita Iparragirren zegoen foball zelaian ere, gaur egun Sauteko etxeak dauden tokian. Gero taldeki batean batzuei Athleticen proba batzuk egiteko aukera eman ziguten eta gutako bost aukeratu zituzten.

- Eredua zara gazte askorentzat eta zuk jarraitutako bidea berdindu nahi izango du batek baino gehiagok. Zein aholku emanongo zenieke?

Egon naizen talde guztietan ni baino jokalaria hobeak egon dira, askoagatik gainera, baina lana gogoz egiten baduzu, nahiz eta lana egitea bakarrik nahikoa ez izan, aukera gehiago izango duzu gora heltzeko.

- Azken urteotan Ipuruan jokatzeak aukera izan duzu, zure txikitako etxetik metro gutxira, eta oso harrera beroa jaso duzu beti. Inoiz pentsatu izan duzu Eibarren elastiko gorriurdinarekin jokatzea?

9 urterekin sartu nintzen Athleticen eta, bertan urteak egin ondoren, pentsatzen nuen han amaituko nuela nire karrera. Bai pasatu zitzaidan burutik nire herriko taldean jokatzea, txikitan eta gaur egun ere Eibarrako bazkidea naizelako, eta ilusio hori nuen buruan, baina beste faktore batzuegatik pentsatu nuen agian ez zela aproposena niretzat. Eibar FT beti maiteko dut, herriko taldea delako.

- Badakizu zein talderen kamiseta jantziko duzun orain?

Oraindik ez dakit. Aukera asko ditut, baina oraindik ez dut erabaki zein izango den hurrengo abentura. Ea eskaintza polit bat heltzen den.



2019 S O V E T

GIZONEZKOEN LEHEN TALDEA (LEHEN MAILA)

DMITROVIC, ESTEBAN BURGOS, R. BIGAS, N.E. RAMIS, ESCALANTE, S. G. ANDUEZA, X. VALENCIA, A. FERNÁNDEZ, J. ANUZITA, I. BEA, J. L. A. GANDIAGA, ZAPICO, P. OLIVEIRA, ARBILLA, KIKE G., CHARLES L.



EMAKUMEZKOEN LEHEN TALDEA (BIGARREN MAILA)

D. ALDAI, E. AIZPURUA, M. LOPEZ DE GUEREÑU, N. ABACENS, C. ADULE, J. ARAUJO, J. OLANGUA, I. DORRONSORO, A. GORRI, M. RODRÍGUEZ, PUYI, C. MORERA, S. ELORZA, A. SEDANE, I.

joma

El Corte Inglés

IBAR 2020



TE, SERGIO A., QUIQUE GONZÁLEZ, P. DIOP, SEREGI ENRICH, EDU EXPÓSITO, YOEL, J. L. MENDILIBAR, A. GOROSTIZA, T. RUIZ, A. AZKARGORTA, M. SÁNCHEZ, B. JUL, X. MORENO, U. ORMAZABAL, ES L. C., DE BLASIS, ORELLANA, R. CORREA, P. LEÓN, INUI, COTE, A. TEJERO, I. DIEZ, M. CALVO.



CENS, N. GANTXEGI, M. AGOÛES, M. OLAÑETA, M. TORRAS, T. C. MÁRQUEZ, M. MIERES, T. MATSUKAWA, GOROSTIZA, U. AREVALILLO, N. SAN EMETERIO, A. ATRISTAIN, I. CABALLERO, H. YONEI E. I. IBARROLA, A. ALTONAGA, R. ALVAREZ, A. CAMPOS, A. LÓPEZ



- 01 GIZ. ALEBINAK
- 02 EMAK. INFANTIL EN OHOREZKO MAILA
- 03 GIZ. INFANTIL TXIKI
- 04 GIZ. INFANTIL EN OHOREZKO MAILA
- 05 EMAK. KADETEEN OHOREZKO MAILA
- 06 GIZ. KADETEEN OHOREZKO MAILA
- 07 GIZ. KADETEEN EUSKAL LIGA
- 08 EMAK. PREFERENTEA
- 09 GIZ. GAZTEEN OHOREZKO MAILA
- 10 GIZ. GAZTEEN EUSKAL LIGA
- 11 GAZTEEN NAZIONAL OHOREZKO MAILA
- 12 EMAK. EUSKAL LIGA
- 13 ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA



Arrateko XX. roll-eski igoera



Gabontraileko partaideak Kalamua gainean irteeraz gozatzen



Klub Deportiboko atletak domina asko irabazi dituzte



Eibar Triatloi Taldekoek Gipuzkoako txapela jantzi zuten Eibarko proban



Ion Izagirrek irabazi zuen Euskal Herriko Itzulia Eibarren amaitutako lasterketan



Andoni Mayok postuak lortu ditu txakur-krosean

MARITXU GANCHEGUI JUARISTI

(I. urteurrena: 2019-I-12)


**"Zure irribarre eta samurtasuna
 BETIRAKO izango dira GURE ARTEAN"**

ETXEKOAK





Eibar Eskubaloiak 19 talde ditu lehiatzen hainbat mailatan



Astelenan pilota jaialdi asko antolatu dira



Ipurua gimnasia erritmikakoak podiumetik podiumera ibili dira



Klub Deportiboko squash taldea Euskal Herriko onenen artean dago



Azkargorta-Camina, Udaberriko txapelkun



Avia Eibar Saskibaloiak urrats handiak dihardu egiten modalitatea gazteenei gerturatzen



EGOITZ UBERUAGA ARANBURU

I. Urteurrena: 2019-I-13

Urtarrilaren 13a zen munduratu zinenean, 33. urtegunean utzi gintuzunean, baina bizi garen artean denon bihotz barrenean.

MALLABIAN URTARRILAREN 19 EGUELDIAN "JAIALDITXOAR" ZURE OROIMENEZ



Arima Galdueak, juggerra bultzatzen gurean



Eibarrek Genuine Ligan ere hartu du parte, Ander Romarateren eskutik



Azkena Adahik irabazi zuen Kirolbet Liga lehen aldiz



Eibarrek emakume beterranoen taldea sortu eta txapela irabazi zuen



Avia Eibar Rugbyko emakumeen taldekoek Ohorezko B Mailara igotzea lortu zuten



Eskozia la Bravakoek sutsu animatu dute



MIGUEL AIZPIRI LARRAÑAGA

II. urteurrena: 2017-XII-24

*“Zure futtsunea ezin da bete.
 Gure oroimenean zaitugu”*

ETXEKOAK





Eibar Igerixan-ek emaitza paregabeak lortu ditu harrobian egindako lanari esker



Ibai Diezek irabazi zuen Arrateko tiraldia



Senior mailako Urbatek Liga eta Kopa bereganatu zituen



Miren Urizar Europako txapeldun izan zen Espainiako selekzioarekin



Ziara ahizpek arraunean debutatu zuten



Hodei Ezpeletak Urrezko Aizkora irabazi zuen 19 urtetik beherako mailan

FRANCISCO BERISTAIN ALBIZU "PATXI"

(II. URTEURRENA: 2018-I-12)

**"IZAN ZARENAGATIK ETA ERAKUTSI DIGUZUNAGATIK
BETI IZANGO ZARA GURE BIHOTZETAN. MAITE ZAITUGU"**

-ETXEKOAK-

URTEURREN MEZA egingo da zapatuan, hilaren 11n,
arratsaldeko 19:00etan hasita, Karmeldarren parrokian.





XXIX. San Juan tiro txapelketa jokatu zen



Klub Deportiboak antolatutako zonaldeko txapelketan Eibarakoak nagusitu ziren benjaminetan



Aitor Monterok Espainiako Kopa irabazi zuen, hainbat probekin batera



Rally Asturiasen ere nagusitu zen Narbaiza eta Etxeberria tandem



Casinoko jokalariek hiru domina ekarri zituzten billarreko Gipuzkoako karanbola libreko proban



Gisasolatarrak nagusi Dianako probetan



Mireia Ormaetxea Luis

5. urteurrena

2015-I-14

BETI ZUREKIN,
ZURE GURASO ETA AHIZPA

Zure argiak,
 zure oroitzapenak
 eta zure irribarre
 eder-goxoak
 gure bihotzak
 argitzen dituzte.



Kalamuako ordezkariak goi-goian jarraitzen dute judo eta jiu-jitsu lehiaketetan



Ibañez anaiak nabarmendu dira karatean



Gorka Agirregomezkorta garaile izan zen Eskoriatzako K-1 Borrokan




Ttatt gimnasioko sanda modalitatekoak bikain Espainiako Kopan



Aitor Alfonsok bikain jardun zuen Espainiakoan



Jokin Alonsok munduko txapela jantzi zuen Spartan Race oztipo lasterketan



GUILLERMO SORRIQUETA BARCENA

II. URTEURRENA: 2018-I-8

*“Bi urte pasatu badira ere,
gure bihotzetan jarraitzen duzu”*

Maite, Ricardo eta senideak





UXUE IGARZA: "Urte Berri On".

ITSASOAREN DEIADARRA natur ondarearen kontserbazioaren garrantziaz sentsibilizatzeko ikuskizuna da. Gure itsasoak eta natur ondarea zaintzeko birziklatzeak duen garrantziaz ohartarazteko, bi perkusio-joleren musika ardatz duen ikuskizun honetan, aktore eta biologo baten arteko elkarrizketak biodibertsitatearen garrantziaz informatuko gaitu. Batez ere 7-12 urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzenduta dago, eta Elgoibarko Herriko Antzokian ikusteko aukera izango dugu urtarrilaren 19an, domekan, 16:30ean. Sarrerak Kutxabank bitartez eskura daitezke.



Elur Arrieta musikari elgoibartarra ikuskizunaren sortzaileetako bat da. Eibarko Musika Eskolan perkusio irakasle moduan ibilitakoa da, eta gaur egun Leioako Udal Kontserbatorioko irakaslea da.

ELUR ARRIETA (musikaria eta ITSASOEN DEIADARRA proiektuko kidea):

“2050erako arrainak baino plastiko gehiago izan ditzakegu gure itsasoetan”

- Zer aurkitu dezakegu Itsasoaren Deiadarra ikuskizunean?

Ur azpiko ikus-entzunezkoak eta zuzeneko perkusiozko musika batuz itsasoak zaintzearen beharra ezagutzeko ikuskizuna da. Familia osoak gozatzeko bidaia liluragarria da, eta gogorarazteko ongi birziklatzeak itsasoko espezieak babesten laguntzen duela. Emozioek lagunduko digute konturatzen irtenbidea gure esku dagoela. Julen Berna, nabigatzaile nekazainak eta Alberto Santolaria, itsasoko algekin maitemindutako biologoak, itsasoaren garrantzia ezagutzera gonbidatzen gaituzte. Etxeko ekimen txikiekin ozeano garbiagoak izan ditzakegu.

- Aktore bat, biologo bat eta musikari bi taula gainean. Nola sortu zen proiektua?

Perkusio-jolea eta irakaslea naiz Leioako udal kontserbatorioan, eta Euskal Herriko hainbat orkestra eta talderekin kolaboratzen dut. Ikasle nintzela eta ondorengo kolaborazioetan Vicent Zaragoza ezagutu nuen, gaur egun Bilboko Orkestra Sinfonikoko

perkusio bakarlaria. Orain dela 4 urte erabaki genuen elkarrekin proiektu bat hastea, perkusio bikote bezala. Aldi berean, Iraide Sarria biola-jolea eta biok musika konpainia bat sortzea erabaki genuen, MUSBIKA, batez ere guk sortzen genituen musika proiektuak gestionatzeko. Bide horretan, Leioan Alberto Santolaria itsas biologoa ezagutu nuen. Albertok NAKUSARBE elkarteak dauka, eta ikuskizun hau itsas ingurunearekiko ezagutza eta interesa sustatzea nahi duen elkarte horren ideia originala da.

- Itsasoaren garrantzia musikaren bitartez transmititzea erabaki zenuten orduan...

Ideiarekin guztiz engantxatu nintzen. Garai hartan Bilboko portuarentzako lanean ari zen, batez ere portuaren itsas azpian urak zeukan kalitatea eta fauna aztertzen. Oso irudi potenteak zituzten. Alberto, ikerlariak gain, urpekaria ere bada, eta inork grabatu ez dituen euskal kostako irudiak ditu.

- Ikus-entzunezkoek pisu handia daukate zuen ikuskizunean.

Ikus-entzunezkoen aldeko apostu sendoa egin dugu. Koktel horretan “tm Tarima” ikuskizunetako logistika enpresa ere sartu zen. Eurei esker *video mapping* teknika erabiltzen dugu ikuskizunean. Tarimarekin lanean hasi ginean Musiklatu idea sortu zen hasieran. “Estreinaldi” moduko bat antolatu genuen Basauriko jaietan, eta bertara Kukubiltxon ibilita-



ko Josu Camara antzerki zuzendari eta aktorea etorri zen. Izugarri gustatu zitzaion eta berak hartu zuen zuzendaritza artistikoa. Gidoia berridazten eta beste ideia batzuk lantzen hasi ginen Josu, Alberto eta hirurok. Sorkuntza prozesu interesgarrietarikoa izan da niretzako. 2019ko otsailan Kultur Leioan estreinaldia egin genuen. Josu Camarak antzerkiaren inguruan daukan traiektoria eta ezagutza itzela da, eta zer esan Alberto Santolariak zientziaren inguruan daukan ikuspegiari buruz...

- Zein da mezu edo ideia nagusia?

Sentsibilizazioa, enpatia eta proaktibitatea. Beharrezkoa ikusten dugu arazoa bistaratzea, eta jendearen proaktibitatea lortzea. Ikuskizunaren amaieran esaten dugu aretora etorri direnak itsaso salbatzaile izendatzen ditugula. Jendeak pauso bat eman behar du eta aktibo bihurtu arazoari buelta eman ahal izateko. Albertok ondo esaten duen bezala, 2050erako arrainak baino plastiko gehiago izan ditzakegu gure itsasoetan. 30 urte dauzkagu arazoari buelta emateko, baina oraintxe bertan hasi behar dugu ohiturak aldatzen. Nola? Etxean hondakinak murriztuz eta birziklatuz.





EÑAUT GORBEA
(aktorea)

“Komunikazio hutsa edo azalekoa gailentzen ari da gizartean”

Zurrunka Teatroak ‘Aioko’ antzezlana eskainiko du hilaren 18an, 17:00etan, Coliseoan. Txotxongiloekin eta itzal-jokoekin Aioko izeneko uhartera eramango gaituzte, Azkartxin eta Moteltxin protagonistak ezagutzera. Bidaia fantastiko honetan, gainera, Aiokoko komunitateak dituen komunikazio-arazoak ezagutzeaz gain, pertsonaia berezi baten berri izango dugu: tintaren jenioa.

- *Nolakoa da Aioko uhartea?*

Uharte fantastikoa da, baina mundu moderno honetako edozein toki izan daiteke. Biztanleak presaka bizi dira, beti korrika, ez dute denborarik elkarrekin egoteko eta gozatzeko, eta komunikazioa oso eskasa da bertan. Ez dituzte inoiz berbak bihotzez esaten, bakarrik behar-beharrezkoak direnean erabiltzen dituzte.

- *Muturrera eramatea da agian, baina gaur egungo gizartea Aiokora hurbiltzen ari da?*

Bai, guztiz. Komunikazio hutsa edo azalekoa gailentzen ari da gaur egungo gizartean.

- *Azkartxin eta Moteltxin dira ikusizunaren protagonistak. Nolakoa dira?*

Antzezlanean esaten da guztiok dohain bat ekartzen dugula jaiotzen garenean eta, Azkartxinek eta Moteltxinek bi dohain dituzte bakoitzak. Moteltxinek baldartasuna eta moteltasuna ditu, eta Azkartxin oso azkarra eta jakinmin handikoa da.

- *Bi pertsonaien dohainak ikusita, batzuk bestea osatzen du?*

Bien artean oso ondo moldatzen dira. Gainera, pazientzia dute eta elkar ulertzeko denbora hartzen dute.

- *Eta nor da tintaren jenioa?*

Jenio honek komunikazio arazoak konpontzen ditu bere tintarekin eta, Aiokon komunikazio arazoa dagoenez, Azkartxin eta Moteltxin jenioaren tinta erabiltzen hasten dira arazoa konpontzeko. Orduan, herritarrak tinta gehiegikeriaz erabiltzen hasten dira eta jenioa xurgatzen dute, ia-ia hil arte, eta jenioak bere azken indarrarekin uhartea bi zatitan puskatzen du.

- *Txotxongiloen eta itzal-jokoaren bitartez kontaktzen duzue istorioa. Nolakoa girona sortzen da?*

Giro fantastikoa sortzen da. Jendeak dio antzezlana flotatzen dagoela dirudie-la. Pantaila ezberdinak erabiltzen ditugu eta batzuk mugitu egiten dira, eta itzal-rako teknika ezberdinak erabiltzen ditu-

gu (linternak, transparentzia monitorea, bionboak...). Beraz, irudia flotatzen dagoela ematen du.

- *Istoria kontatzeko estilo honek, Aioko izenak bezala, kutsu japoniarra du. Japoniako influentzia du ikusizunak?*

Sorkuntza prozesuan abiatu genuen lehen ideia Japonian amaitzen zen eta hango mitologiaren inguruan ikertu genuen. Baina azkenean istorioak ez du Japoniako ezer, jenioaren figura bakarrik. Izan ere, Japonian jenio bat dute edo zertarako (lurrak, belarrak, haizeak...).

- *Kanpotik ikusita umeei zuzenduriko lana dela dirudi. Horrela da?*

Ikusle guztiei zuzenduta dagoen ikusizuna da. Haurrei zuzentzea erabaki genuen, baina helduentzat primeran dago. Ez genuen zerbait zaila egin nahi, umeek jarraitzeko moduko zerbait sortu nahi genuen, baina istorioa oso sakona da. Umeek gauza batzuk ulertuko dituzte eta helduek beste batzuk.

Zabalik dago “Tupper osasungarriak” tailerrerako izen-ematea

Sarritan laneko errutinak aurrez prestatutako platerak eta osasungarriak ez diren elikagaiak jatera eramaten gaitu. Hala ere, oreka nutrizionala eta ekonomikoa mantendu egin daiteke monotonian erori gabe. Mireia Alberdi nutrizionista bergararrak “tupperra” horretarako tresnarik onena dela erakutsiko digu urtarrilaren 28rako ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako tailerrean. Ikastaro praktikoa izango da eta aukera begetarianoak eta beganoak hartuko dira kontuan. Saioa Portaleko sukaldetan izango da, 18:30etik aurrera. Izen-ematea datorren astelehenean, urtarrilaren 13an zabalduko da, eta horretarako nahikoa da 943 20 09 18 telefonora deitzea edo elkarte@etakitto.eus helbidera idaztea. Izen-emateak 3 euro balio du.



Bertso-tramarekin amaitu zuten urtea Hankamotxak taldekoek

Atzean laga dugun urteari agur esan aurretik, abenduaren 29an bertso-trama saioa hartu zuen Guridi tabernak. Hankamotxak bertso eskolakoek antolatutako saioa Jokin Bergarak gidatu zuen eta bertsoan, berriz, Amaia Iturriotz, Eli Pagola eta Maider Arregi aritu ziren.



Coliseoaren Laguna txartela eskuratzeko epea zabalik dago

Udalak antolatzen duen edozein ikuskizun edo kontzerturako zein Coliseo antzokiko zine komertzialaren sarreretan %30eko beherapena lortzeko aukera ematen duen Coliseoaren Laguna txartela eskainiko dute aurten ere. Txartelek urtebeteko iraunaldia dute, izendunak dira, pertsonalak eta besterenezinak. Titular bakoitzak sarrera bat eskura dezake ikuskizun bakoitzeko, eta txartela erakutsi behar du sarrerarekin batera barrura sartzean. Bestalde, deskontuak bateraezinek dira eta 5 euro edo gutxiago balio duten sarreretan ez da beherapenik izango. Txartela eskuratu edo informazio gehiago nahi izanez gero, Pegorara jo behar da.

Transmisio Mintegia martxoaren 11n izango da

10 urte beteko ditu aurten ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik urtero egiten den Euskararen Transmisioari buruzko mintegiak eta, hori dela eta, oso berezia izango dela aurreratu dute antolatzaileek: "10 urte hauetan hizlari aritu diren aditu desberdinen arteko solasaldi laburrez osatutako egitarauaz gain, sorpresa ugari izango ditugu eta, betiko moduan, aukera paregabea izango da gaia ikuspegi desberdinetatik lantzeko". Izen-ematea otsailean zabalduko bada ere, parte hartzeko interesa dutenei data agendan gorde eta kaleratzen joango garen informazioari adi egoteko aholkua eman dute arduradunek.



Argazkilaritza ikastaroa Kulturalean

Arrate Kultur Elkarteak argazkilaritza digitalaren inguruko oinarrizko ikastaroa antolatu du. Urtarrilaren 27 eta 29an eta otsailaren 3, 5, 10 eta 12an izango dira klaseak (astelehen eta eguaztenetan), 19:30etik 21:30era. Izena emateko arratekultu@gmail.com helbidera idatzi behar da (bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 35 euro). Gehienez 16 lagunentzat tokia dago. Informazio gehiagorako 943 202 299 edo 638 284 912 telefonoetara deitu daiteke.



Lorelei taldearen kontzertua

Asier Serrano idazle eta kantariak eta Mikel Gorosabel musikariak (EH Sukarra) 1990eko hamarkadan sortutako Lorelei taldeak kontzertua emango du Andoaingo Bastero Kulturgunean, urtarrilaren 17an, 21:30ean. Sarrerak 12 euro balio du.

Aratosteetako kartel lehiaketa

Aratosteetako kartel lehiaketaren deialdia egin du Udalaren Kultura Batzordeak. Kartelerako gaia zein koloreak norberaren aukerakoak izango dira, baina derrigorrez azaldu beharreko testua "Aratosteak Eibarren 2020" da. Irabazlearentzat 600 euroko saria emango dute. Kartelak aurkezteko epea urtarrilaren 17ra artekoa da, Pegoran (elektronikoki ala presentzialki) eta informazio gehiago eskatzeko ere bertara jo daiteke.



Irigoien argazkiak Santurtzin



Bihotz Gaztea argazki taldeak antolatuta, otsailaren 29ra arte egongo da Jose Luis Irigoien "Neurri handiak" argazki erakusketa ikusteko aukera, Santurtziko The Wagon-en (Vapor Habana, 4).

Gwendal talde beteranoaren kontzertua datorren barixakuan

Urtarrilaren 17an, 22:00etan hasiko da Gwendal taldearen kontzertua Coliseo antzokian. Zeltiarren lurretan sustraiak dituen taldea Bretainian (Frantzia) 1972an sortu zenetik, bere gaitako funtsezkoena osatzerakoan taldekide bakoitzarengandik datozen rock, jazz, folk eta musika klasikoaren eraginetatik ateratzen ditu. Youenn Le Berre (flauta, bonbarda, gaita), Vincent Leutreau (bibolina), Ludovic Mensil (kitarra akustikoa eta elektrikoa), Jérôme Gueguen (pianoa), Michel Vally (baxua) eta David Rusaouen (bateria) musikoek osatzen dute Gwendal eta konposizio zein konponketak taldean lantzen dituzte. Behin konposizio horiek eginda, gaiak prest



Gwendal osatzen duen seikoteak Bretainiako rock, jazz, folk eta musika klasikotik ateratzen dituzte gaiak.

daude eszenategian interpretatzeko, eta kontzertuetako dinamika publikoarekiko harremanekin garatzen dira. Hori guztia grabaketa-estudiotik

pasatu aurretik ematen da eta hortik dator, beraz, euren diskoetako freskotasun eta heldutasuna. Urteotako ibilbide horretan 1.000 kontzertutik

gora eskaini dituzte munduko herrialde guztietan. Sarrerak 25 euro balio du (17'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Lolita Floresek zabalduko ditu aurtengo Antzerki Jardunaldiak

Otsailaren 26an hasiko da Eibarko Antzerki Jardunaldiaren XLIII. edizioa, ohiko hitzaldisolasaldiarekin, eta apirilaren 2ra arte iraungo du. Inaugurazio-ekitaldian Lolita Floresek hartuko du parte, hurrengo egunean antzeztuko duen "La fuerza del cariño" lanean antzezkide izango duen Luis Mottolarekin batera. Aurreko edizioetan bezala, aurtengo ere aktore oso ezagunak ekarriko dizkigute Jardunaldiek: Imanol Arias, Adriana Ozores eta Luis Piedrahita, besteak beste. Euskal konpainiei da-

gokienez, Vaiven, Artedrama, Tartean, Ados Teatro, Marie de Jongh eta Cancamisa egongo dira eta, horiekin batera, Sevillako Atalaya konpainia, Histrion granadarra, Galiziako Pistacatro eta Chevere, Electrico 28 eta Kataluniako Brodas Bos dantza urbanoen konpainia ere etorriko dira. Gainera, omenaldia egingo zaio Txema Cornagorekin batera jardunaldiak sortu zituen Juan Ortegarari eta edizio honetarako kartela, berriz, Iñaki Larrañaga artista eibartarrak egin du.



Kursaala beteta eta txalo artean agurtu zen "Alizia" musikala



Hiru urte eta gero, Donostiako Kursalean egin zuten "Alizia" musikalaren azken emanaldia urtarrilaren 4an eta, sarre guztiak saldua, aretoa goraino beteta agurtu ziren Bergarako Musika Eskolaren eskutik sortutako ikuskizun arrakastatsuko protagonistak. Orain arteko beste emanaldi guztietan bezala, azken horretan ere Jose Miguel Laskurainek zuzendu zuen 22 musikaririk osatutako orkestra. Urtea hasi berri den arren, eibartarra beste proiektu garrantzitsu batzuk lantzen hasita dago honezgero: Minsk (Bielorrusian) hirian ez ezik, Alemaniako Bonn hirian ere zuzendari modura jarduteko asmoa dauka, besteak beste.



77. Mugertza krosa ELGOIBARREN

Hamabi herrialdetako atletak lehiatuko dira domekan, urtarrilaren 12an, Mintxetako kros zirkuitoan. Lehen lasterketa, alebin neskena, 9:30ean hasiko da, aurreko urteetan baino orduerdi lehenago, "logistika" hobeagoa izateko helburuarekin, proba guztiei lekua egiteko. Guztira hamabi lasterketa izango dira. Senior emakumezkoena 12:30ean hasita eta 13:15ean gizonzkoena. Junior mailako atletak lehiatzen diren Mamo Wolde Sariak 18. ekitaldia izango du aurten. 11:35ean hasiko da emakumeena eta 12:00etan gizonzkoena.



Itzal-antzerkia BERGARAN

Gaur 18:00etan Bergarako Seminarixoan "Zineko itzalak" antzezlanak ikusi ahal izango da. Txinako itzal-antzerkia ondo baino hobeto ezagutzen duen Valeria Guglietti da lanaren egilea. Argentinan jaioa, Bartzelonan bizi da eta, urteetako ibilbidea eta gero, horrelako antzerkigintzan dagoen erreferente garrantzitsuenetakoa izatera ailegatu da. Ekimen ugaritan parte hartzen duen Gugliettik hamaika sari jaso ditu berak sortutako ikuskizunei esker. Sarrerak 4 euro balio du.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- **Rafaela Gonzalez De la Calle.** 102 urte. 2019-XII-26.
- **Miguel Angel Areitioaurtena Lazpita.** 81 urte. 2019-XII-27.
- **Ernesto Gorosabel Amuategi.** 91 urte. 2019-XII-27.
- **Elisabet Santa Cruz Sanz.** 89 urte. 2019-XII-28.
- **Marisa Bildosola Anitua.** 89 urte. 2019-XII-31.
- **Petra Agirregomezkorta Txurruka.** 93 urte. 2020-I-1.
- **Mª Pilar Matorra Fernandez.** 66 urte. 2020-I-4.
- **Encarna Aparicio Varona.** 101 urte. 2020-I-4.
- **Jose Antonio Mediavilla Muñoz.** 70 urte. 2020-I-5.
- **Julio Anitua Aranzabal.** 85 urte. 2020-I-6.
- **Consuelo Estevez Blanco.** 89 urte. 2020-I-8.

jaiotakoak

- **Irati Zubia Abad.** 2018-XII-24.
- **Sofia Ouarite.** 2018-XII-25.

farmaziak

- Barixakua 10**
 EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Zapatua 11**
 EGUNEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)
- Domeka 12**
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Astelehena 13**
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Martitzena 14**
 EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Eguaztena 15**
 EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 16**
 EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Barixakua 17**
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI - 2020AN-
Barandela (Z. Agirre, 4)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Andretxea.....943 70 08 28
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

2	7	6	5	1	3	9	4	8
9	3	1	4	7	8	6	2	5
4	5	8	9	6	2	3	1	7
6	1	2	8	3	9	5	7	4
5	4	3	7	2	1	8	9	6
8	9	7	6	4	5	1	3	2
1	8	5	2	9	7	4	6	3
7	6	9	3	8	4	2	5	1
3	2	4	1	5	6	7	8	9

	3		6	2	4	8		
8						6		
		2	5					
				1	9	3	2	
5								6
	9	3	4	5				
				3	7			
		9						1
		4	1	9	7		6	

Barixakua 10**ZINE-FORUMA**

19:00. "Tres anuncios por un crimen" (Zuz: Martin McDonagh) filmaren inguruko zine-foruma, Pagatxaren eskutik. Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Sarrera librea. Portalean (areto nagusian).

Zapatua 11**KALEETAN KANTUZ**

11:00. Kaleetan Kantuz abesbatzaren irteera. Urkizutik abiatuta.

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30. 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Astelena frontoian.

BATZARRA

11:00. Eibarko Txirriindularien Elkartearen urteko batzarra (bigarren deialdia **11:30**ean). Portalean.

BAZKARIA

14:30. Gureak lantegikoen bazkaria, Auzokoak elkartearen eskutik. Urkusu Gain eta Erdi Bana elkarte gastronomikoan.

AUTOBUSA

15:30. Bilbon egingo den "Orain Presoak. Atera Bidera" manifestazio nazionalera joateko autobusaren irteera. Ego-Gainetik.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

Domeka 12**ANTZERKIA**

15:00 & 17:00. "Go!azen 6.0" (Pausoka). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45. Patinatzeko pista. Ipurua kiroldegian.

Astelehena 13**ELKARRETARATZEA**

12:00. Jubilatu eta Pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

BIDEO-FORUMA

18:30. "Las 13 rosas" filmaren ingurukoa, Pagatxaren eskutik. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Sarrera librea. Portalean (ikastaro gelan).

Martitzena 14**IKASTEN**

11:00. Ikasten elkartearen urteko batzarra. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

Eguaztena 15**EIBARKO KANTUZALEAK**

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 16**IKASTEN**

10:00. "Hauteskunde erreforma" hitzaldia, Miguel Arroitauregiren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza taldearen entsegua (hastapena, beteroenen entsegua 18:00etan hasiko da).
19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan

Erakusketak**Urtarrilaren 12ra arte:**

- "UDAZKENA" EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN ARGAZKIAK (*Portalea*)
- "ESKEMA" ION FIZ DISEINATZAILEAREN BOZETOAK (*Armagintzaren Museoa*)
- "GURS EXPERIENCE. ARTEA ETA MEMORIA" (*Portalea*)

zineaColiseoan**(1 ARETOAN)****11n: 19,45, 22:30**
13an: 20:30**"El silencio del pantano"**

Zuzendaria: Marc Virgil

**(2 ARETOAN)****11n: 17:00, 19:45, 22:30**
12an: 17:00 (1 aretoan)
13an: 20:30**"Richard Jewell"**

Zuzendaria: Franc Dubosc

**(ANTZOKIAN)****11n: 17:00** (1), **19:45, 22:30**
12an: 17:00
13an: 20:30**"1917"**

Zuzendaria: Sam Mendes

**(ANTZOKIAN)****12an: 17:00**
13an: 17:00 (Antzokian)**"Espías con disfraz"**


Zuzendaria: Nick Bruno



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, HODEI, atzo 7 urte bete zenuazuen-eta. Patxito asko famelixa guztiaren eta, batez be, Amets eta Bihotzen partez.



Zorionak, ANE Plazaola, hillaen 5ian 7 urte bete zenuazuen-eta. Famelixakuen eta, batez be, Olatz zure ahiztiaren partez.



Zorionak, MANEX!!! Abenduaren 27xan 9 urte bete zenuazuen-eta. Zein ondo ospatu genduan! Musu bat famelixaren partez.



Zorionak, AINHOA, gaur 6 urte betetzen dozuzelako. Musu potolo bat familia guztiaren eta, batez be, amatxoren partez



Zorionak, ALICIA, abenduaren 31n urtiak bete zenuazuen-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, gure bihotz CARLA, domekan urtiak egingo dozuz-eta. Aitta, ama eta gure famelixaren partetik.



Zorionak, gure EIDER!! 6 urte daganeko, neska haundi! Musu asko famelixa guztiaren partez.




Zorionak, GARAZI, gaur urtiak egitten dozuzelako. Asko maite zaittuen famelixaren eta, batez be, Juneren partez.



Zorionak, IÑAKI eta aitxixa Julian, zuen urtebetetzian!!!! Musu haundi bana famelixa guztiaren partez.



Zorionak, XUBAN, domekan 18 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, MALEN!, hillaen 15ian 8 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, PAULE!! Atzo urtebete jaixo ziñala! Etxekuak asko maite zaittugu ♥



Zorionak, ENEKO, bixar 3 urte beteko dozuzelako, eta AMAMA (hillaen 26xan pilla bat). Musu potolo haundi bana etxekuen partez.




Zorionak, LEIRE, hillaen 8xan 5 urte bete zenuazuen-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, MARKEL, mutil haundi! Hillaen 8xan 8 urte bete dozuz-eta! Besarkada haundi bat famelixaren eta, batez be, DANELen partez.



Zorionak, tio IÑIGO (hillaen 5ian 49 urte) eta IKER (bixar 19 urte)! Ondo-ondo ospatu. Musu haundi bana famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JOXEPA, IHINTZA, EKHI eta GORKA, urtiak bete dozuez-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere 4 **ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai Legarre-Gainen. Egoera eta prezio interesgarrian. Tel. 622-755365.

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Eibar erdialdean. 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Berehala sartzeko moduan. Tel. 688-667994.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 627-892991 eta 674-377765.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai San Juan kalean. Oso sarrera ona, 1. solairuan. Tel. 652-775746.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 642-597600.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-268671.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Ordu-tegi malgua. Tel. 679-912841.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Asteburuak barne. Tel. 612-562586. Diana.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 643-892696.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Orduka. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Arratsalde eta asteburuetan. Esperientzia. Tel. 632-098382.
- Eibarko neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 699-306873.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 655-094780.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 643-278344.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 632-329213.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 680-526228.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 681-013032.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 642-995010.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-580369

- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-776998.

- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. 4 urteko esperientzia. Tel. 643-398596.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 5 urteko esperientzia. Tel. 643-929554.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 688-754873.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 631-502177.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-874525.

- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Baita asteburuetan ere. Orduka. Erreferentziak. Tel. 600-073104.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 632-415374.

4.2. Langile bila

- Aho-haginetako higienista behar da. Jardunaldi osorako eta berehala hasteko. Bidali curriculum: hortzlinika.06@gmail.com

- Basondartzak Eskolarako 2019-20 ikasturterako bidelagun bila gabiltza. Bidali curriculum: basondartzak@gmail.com

- Elgoibarko enpresak txofer eta biltegi lanetarako pertsona behar du. Bidali curriculum: gmirenb@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaearak

- Ekonomia irakaslea behar dut, Zuzenbideko 1. Mailarako. Tel. 685-752000.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo, Heziketa zikloak eta Unibertsitate mailako klase partikularak ematen dira. 3 laguneko taldeak. Tel. 678-937827. Patricia.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaearak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

Urtarrilaren 31^{ra} arte **MATRIKULA ZABALIK**

Euskararekin Match!



Egin
gurekin
bat

19/20

Matrikula
epea zabalik
Plazo de
matriculación
abierto



UDAL
EUSKALTEGIAK

2019-20 ikasturtea

**- MAILA GUZTIETAKO
euskara ikastaroak**

16 urtetik
gorakoentzat

1. MAILA		2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	
A1	A2	B1	B2	C1	C2
OINARRIZKO ERABILTAILEA		ERABILTAILE AURREHATUA		ERABILTAILE ADITUA	

- Autolkaskuntza: **Bakarkako lana, tutoretzak eta mintzasaiolak** (BOGA programa)
- Etorkinentzako harrera-ikastaroak (**AISA**)
- Azterketa prestakuntza
- **HABEko** titulu ofizialak

ordutegi zabala

**TARIFA BEREZIAK: %20, %50 eta %75eko deskontua
KONTSULTATU**

Eibarke
Udal Euskaltegia
35 urte zuekin!



Bista Eder, 10 -PORTALEA-

euskaltegia@eibar.eus

Tfnoa: 943 70 09 12

Faxa: 943 82 00 89



FISIOTERAPIA


ZENTRUA

Ane Mendia

970 kol. zkia.

Arragueta, 20 - behea

943 530642



ane_mendia@hotmail.com



**INDIBA TERAPIAK ARTIKULAZIO
TENPOROMANDIBULARREKO ARAZOK
TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK
K-STRETCH KLASEAK BAKARKA
HIPOPRESIBOAK ETA FISIOTERAPIA
OROKORREAN ERGONOMIA HOBETZEKO
KLASE PERTSONALIZATUAK**



UNBE



ORBEA



PADELPISTAK



IGERILEKUA



TENISPISTAK



SPA



ZORIONAK!

eta

2020.

URTE

Kirolari

XOM!



Eibarko Kirol Patronatoa
Patronato Municipal de Deportes de Eibar

